

BIZITZA:

Jokin Zaitegi Plazaola (Arrasate, 1906/07/26-Donostia, 1979/08/17) idazle eta itzultzailea izan zen.

Hamalau urterekin, Durangoko jesuiten etxean sartu zen. Geroago, Comillas, Loiola eta Oñan egin zituen ikasketak. Loiolan zela, ikaskide izan zituen Estepan Urkiaga "Lauaxeta", Plazido Mujika eta Andima Ibiñagabeitia. Hauek, beste apaizgai euskaltzale zenbaitekin batera, *Euskal Elerti Bazkuna*, euskal akademiatoa, sortu zuten. Haien asmoa jesuita gazte euskaldunak euskaraz prestatzea zen, ordenatutakoan euskaraz lan egin zezaten. Lagundiko zenbait agintarik gaizki hartu zuten taldearen asmoa, eta saiatu ziren taldekideak sakabanatzen. Hori zela eta, 1929an lagundiak Venezuelako Méridara bidali zuen Jokin, irakasle. Ondoren arrazoi desberdinengatik hego ameriketatik bidaiatzen egon zen.

1951n Landibar lizeoa sortu zuen Guatemalan, eta baita Santa Monika egoitza ere, geroago Euskal Etxea izango zena. 1955ean Euskal Herrira itzuli zen, eta Biarritzen jarri zen bizitzen. Bertan *Euskal Idazleen Etxea* sortzen ahalegindu zen. 1956an I. Euskal Mundu Batzarrean parte hartu zuen, Parisen. 1956tik aurrera Biarritzen argitaratu zuen Euzko-Gogoa. Guatemalatik ekarritako hirurogei mila dolar euskal kulturaren aldeko enpresa horretan inbestitu zituen arren, 1960an, ekonomia zein banaketa arazoek jota, aldizkariaren ibilbidea amaitu zen.

1962an Guatemalara itzuli zen, eta han bizi izan zen 1972 arte. Urte horretan, Euskal Herrira itzuli zen, Arrasatera hain zuzen ere. 1976an, Arrasatek seme kutun izendatu zuen; eta Euskaltzaindiak, ohorezko euskaltzain. Azken urteetan Oñatiko zahar etxean bizi izan zen, San Martin egoitzan. 1979an, Donostian hil zen.

OBRA:

Prosan, poesian eta itzulpengintzan ibili zen. Zaitegiren poesia lan ezagunenak *Goldaketan* (1946) eta *Berriz ere goldaketan* (1962) dira. *RIEV*, *Egan* zein *Euzko-Gogoan* (sortzaile izan zen) argitaratu zituen bere lan zenbait eta orduko pizkundeko autoreekin harremana izan zuen, Lizardi zein Lauaxetarekin, esaterako. Loiolan *Euskal Elerti Bazkuna* sortu zuen Andima Ibinagabeitia eta beste zenbaitekin batera. Itzultzaile gisa, besteak beste autore klasikoen lanekin aritu zen, Platon edo Sofokles kasu.

